

■ erantzuguazu...



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

Guggenheim: ikuskizuna edo artea?

■ **Bilboko museorik** garrantzitsuenak zere-
san franko eman du
azken hilabeteotan.
New Yorkeko museoa-
ren arrakasta ez dut
uste eskaintzen duen
artelanetara mugatu
daitekeenik. Iparrameri-
karrak dira eta ikuskizunaren kultu-
ra barneratua dute
erabat. Nahiz eta he-
mengo kudeatzaileek
behin eta berriz esan
erabakiak Bilbon har-
tzen direla, ez dut us-

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizena eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

Hurrengo galdera:

Non dago baserriaren etorkizuna?

te horrela denik. Fun-
tsezko neurriak itza-
soz bestalde hartzen
dira eta saltzaile
apartak direla eraku-
tsi digute. Ez zait
gaizki iruditzen, bai-
na ez dezagun gure
lorpen modura saldu,
benetako lanildoak

New Yorkeko bulego
elegante batean har-
tzen direnean. **Aitor
Etzaniz** (Azkoitia)

■ **Ikuskizuna eta artea**
elkarrekin dozela us-
te dut. Ezin dira ba-
natu; ezin dira erdibi-

tu. XXI. mendearen
atarian gauden honetan,
ikuskizuna gure
gizarteko ardatz
bihurtu zaigu. Gero
eta tarte gehiago es-
kaintzen diogu, tek-
nologia berriei esker.
Beraz, biak elkarre-
kin doaz: ikuskizuna
eta artea. Biak dira
Guggenheimerako
erakargarri. Niri, be-
deren, arte ikusgarria
gustatzen zait. Harri-
tzen nauena. **A. Gokoitza** (Lezaola)



galdeiozu...

Txillardegia

[DAZLEA]

Ba al dakizu 'E.H. Helburu'
zure liburuan **Enkartazioez**
esaten dituzun gauzak ez
direla egiak?

Juan Luis Fernandez [Getxo]



■ **ENKARTERRIAN** bi eskualde berezi behar dira. Ekialde-
koan (Galdames-Sopuerta-koa) euskara erabilia izan da XIX
mendera arte. (Barakaldoko Junteroena mila aldiz aipatu da:
euskaldun hutsak zirelako). Karrantza/Paraia eskualdean
euskara arkaikoa agertzen da toponimian (ikus Sasia eta Iri-
goien berezikiki).

Martxoaren 2tik aurrera

Imanol Lazkano • EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEKO

LEHENAKARIA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.

Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari



Gudariaren etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatziz duenaren izena, telefonoa, helbidea eta
NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere
esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Anoetako «errealzale batzuei»

Gutun hau idazteko arrazoiak. Erre-
alak Anoetan Teneriferen aurka jo-
kari zuen partiduan «errealzale ba-
tzuek» izan zuten jarrera edo portae-
ra desegokia da. Partidua hasi
bezain laster (lehenengo 5 minutu-
tan) entzun ziren aurreneko txistuak,
eta txistu hauek Aitor L. Re-
karteri zuzenduak zeuden. Hasiera
batean ez nuen sinestu nahi txistuak
Aitorri zuzenduak zeudela, baina
partidua aurrera zihonan heinean zo-
ritzarrez sinestu egin behar izan
nuen hala zela, hau gertatzea lotsa-
garia iruditu zitzaidalarik.

Inoiz ez dago ondo Errealeko joka-
lariei txistuak jotzea, baino are gu-
txiagoraino hainbat eta hainbat urtetan
Zubietan lanean jardun izan duen
jokalari bati, eta iaiz (bere aurreneko
denboraldian) halako denboraldi
ederra egin zuen mutil gazteari. Uler-
tu ezin nuen ez, inguruko ikusleei

galdezka hasi nintzen, txistuak jo-
tzeko arrazoiak zein zen, eta jaso nuen
erantzuna At. Madriden aurka jolas-
tutako partidu txarra eta mutilaren
forma fisiko txarra izan ziren. Guzti
hau ikusita harrituta eta haserretu-
ta gelditu nintzen. Nire harridura eta
haserrea are eta handiagoak bihurtu
ziren. Igor Cvitanovic zelaira irteetan
jendeak berarekin izan zuten jarrera-
rekin. Jokalari hau, 450 milioi peze-
ta ordaindu behar izan gertuen, eki-
poko soldatarik onenetakoa omen
du, daramatzen urtebete pasan 3 gol
baino ez ditu sartu eta jendeak «he-
roia» izango balitz bezala hartu zuen.

Nik ez dut esango Igor Cvitanovic-i
horrelako jarrera edo harrera egitea
gaizki dagoenik, baina bai harrobiko
jokalariei eta atzerritarrei «errealzale
batzuek» ematen dieten tratu des-
berdina.

Amaitzeko, animoak eman nahi
dizkiet Aitorri eta harrobiko jokalariei
guztiei. **Aitor Zulaika** • AZPEITIA
(GIPUZKOA)

Albert Pla-ri zuzenduriko eskutitza

Nor naizen eta eskutitz honekin ni-
re intenzioa zein den kontatzera no-
akizu.

Ni literatura garaikideko ikaslee-
tariko bat naiz, eta klase honetan,
kantu edo abesti batzuk aztertzen di-
tugu, beste gauza askoren artean.

Duela aste bete, zure abestietako
bat aztertu genuen, *La dejo o no la
dejo* hain zuzen ere. Aztertu ditugun
hainbat abesti bezala, bere zentzu li-
terarioa ikusterakoan, pentsamenez
guztiz aldatzen duzu, etxean entzu-
terakoan eta hemen klasean ikusten

ditugunean, sentsazioa eta horretaz
pentsatzeko era guztiz desberdina
da.

Kontatu didatenez, zure kontzer-
tuetan, abesteaz gain, antzeztu egi-
ten dituzue zure abestiak, baina...
zertarako egiten duzue hori? Entzule-
goa edo ikuslegoa erakartzeko
agian? Niri ondo iruditzen zait, baina
zure ikuskizuna antzerkiarekin ba-
doa, zintaz entzuten zaitugunean...
berdina izango al litzateke?

La dejo o no la dejo kantuan, zen-
tzu filosofiko batez hitz egiten ari za-
rela uste dut, baina benetan horrela
al da? Edo benetan zuri gertatutakoa
gauza erreala al da? Kuriositatea ba-
daukat, hori jakiteko nahia badut;
beraz, norbaitek badaki, edo zuk
zeuk erantzunago bazenit, asko poz-
tuko nintzateke. **Ohiane Eskurza** •
BILBO

ZUZENKETA: Batenaz beste. Europako bitanlehen %6
baino ez dira nekazaritzatik bizimodua ateratzen
duten hiritarrek, eta ez %56. atzoko 2. orriko *Hizpide*-
an genion moduan.

• MONTXO •

